



244. zenbakia

• Urria 2024 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Aurpegi uholdea. Aurkezpena
Jon Benito
(Berria, 2006-07-30 / armiarma.eus, 2024)

Israelek Libano inbaditu, bonbardatu, sarraskitu zuen 2006an. Hitz hauek idatzi zituen **Jon Benitok** Berria-n:

*Beirut setiatuaren
argazkiak egunkarietan.
Beirut suntsitua begi bistan:
etxea zena harritzar
piloa da orain.
Sabairik gabeko etheen ondoan
zuzen aparkatuta zeuden bi
auto kaltetuta argazkian.
Hori balitz guztia.
Ez balitz jendea*

Gaur idatzita ere balio dute. Baina sorkuntza eta literatura ere bazela Libanon, eta erakusgarri Libanoko 13 poetaren testuak euskaratu zituen. **QR honen bidez topatuko dituzue.** Eurak dira Libano libre, Libano erresistenteko poetak. Eurak gaurko Libano setiatuan. Euren ohoretan.



Irailaren 16tik aurrera
Esan Erran irratiako denboraldi berria martxan!

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:
EGUN ERO magazina
(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatuz:
EGUN ERO KANTUZ eta **MEMORIAREN TXOKOA**
(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,
BROMA GUTXI
(larunbatetan 20:00etan errepikapena)
Eta, gainerakoan, Arroza sareko irratsaioak eta Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika, podcast desberdinak...

PIZTU ESAN ERRAN!
FM-ko107.9 edo
amezti.eus/irratia/zuzeneko



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe sarea

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

Emaila

pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarteak, Ezpela Euskara Taldea, Patxi Irurzun eta Alazne Fdez. de Muniain

Koordinatzaileak

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

Tirada

1.700 ale

inprimategia

Gertu

Maketazioa

Zas Komunikazioa

Azaleko Argazkia

Elorri Txuria. Gurutz Urzelai.

Lege gordailua

NA 721/93

Inprimategira urriaren 12an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Mendi taldeak*

07

Ingurumena. *Arkamelua*

08

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarteak*

10

Albisteak.

14

Berezia. *Malores Etxeberriak utzitako gakoak*

16

Ekimenak. *Ultzamako dantza taldea*



20

Gure hizkerak. *Eskualdeko solasak.*

24

Aspaldiko Kontuak. *Berueteko lapurrak (VI)*

27

Ardo Frexkoa. *Bi gertakizun.*

28

Kirola. *Oztopo-lasterketa.*

30

Zer ikusi *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

33

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Abuztua.*



Orbela mendi taldea Basaburuan, eta Artzeki, Anuen

Mendizaletasuna puri-purian dago Euskal Herri osoan, eta, gure eskualdea mendiz inguratua izaki, hemen ere baditugu mendi taldeak. Basaburuko Orbela eta Anueko Artzeki taldeak ezagutzeko aukera izanen dugu erreportaje honetan. Mendiarekiko maitasuna ingurumenarekiko zaletasunarekin uztartzen dute haien irteeretan

Izen handiko mendiak baditugu Ultzama aldeko eskualde zabalean. Saioa izanen da horietatik ezagunena, ziurrenik, baina baditugu hain entzutetsuak ez diren beste asko ere: Ireber, Ernaitzu, Begaña, Okolin, Gartzaga, Arañotz, Aizarbil, Aldaun... Mendiz mendi doan GR12 ibilbideak ere alde alde zeharkatzen du gure eskualdea, aurrez aipatutako mendi horietako zenbait pasaz. Ez da zaila, beraz, eskualdean dagoen mendirako zaletasuna ulertzea. Basaburuko Orbela taldea eta Anueko Artzeki ditugu gaur egun martxan, baina duela urte batzuk,

Ultzaman ere Ausiña mendi taldea egon zen.

Duela 30 urte inguru sortu zuen herritar talde batek Basaburuan Orbela mendi taldea. "Ez gara talde erregistratu eta ofiziala, mendirako zaletasuna partekatzen dugun herritar talde bat baizik", azaldu du Leontzio Uharte igoarrak, mendi taldearen sortzaileetakoa denak. Ibilbide luzea du Orbelak, eta eskualdean aitzindaria izan zen, aurretik ez baitzegoen halako beste talderik. "Lehen, ez zegoen mendira joateko ohiturarik, edo ez behintzat oraingo moduan. Garai

Duela 30 urte inguru sortu zuten Basaburuko Orbela mendi taldea

batean, jendea mendira lanera joaten zen: aziendak ikustera, edo bestelakoetara. Mendiarekiko harremana beste modu batekoa zen", dio. Xabi Azpirotz basozainarekin eta beste zenbait kiderekin hasi zen Uharte mendi ibilaldiak antolatzen eta taldean egitea proposatzen.



Orbela mendi taldea, Berriosotik Etxalekurako irteeran ▲



Errugbian bezala, mendian ere hirugarren denboraldia

30 urteotako ibilbidean, makina bat ateraldi egin dituzte Orbelako kideek, bai eskualdeko mendietara, baina baita kanpora ere. Irteera bakoitzaren ondoren, ordea, badute beti mantentzen duten ohitura eder bat: elkarrekin bazkaltzea. Errugbiko hirugarren denboraldiaren baliokidea litzateke Orbela mendi taldearentzat bazkariarena, nolabait. "Whatsapp taldea dugu martxan, eta bertan proposatzen ditugu mendi irteerak. Jendeari aurrez izena emateko eskatzen diogu, dena hobeki antolatzeko eta mendi bueltaren ondorengo bazkaria erreserbatzeko", dio Uhartek.

Eskualdeko mendiak behin baino gehiagotan eginak dituzte honezkerok, baina eskualdetik kanpo ere mugitzen dira franko, antolatzaileak azaldu duenez. Pirinioetara askotan atera dira, esaterako. "Eskualdea igarotzen duen GR12-aren zati osoa egina dugula esanen nuke, zatika-zatika joan gara egiten. Baina, Pirinioetara ere mugitzen gara, edo Urbasara...". Irteera kuttunen artean, urtero Urbasa-Andiara egiten dutena

aipatu du Uhartek. Ihabartik aterata, Lezaungo bordarako bidea egiten dute, Andimenditik. "19 kilometro dira, Ihabargo Portu Zaharretik igotzen gara, eta Euskal Herriko erdigune geografikotik pasatzen da bidea. Gero, goian, sekulako bistak daude, larreetatik Andimendia gurutzatzen da. Eta, gero, gainera, tripa betetzeko aukera ederra izaten dugu!".

Ateak edonori zabalik, baina oinez ibiltzeko ohitura pixka bat izatea komeni

Zailtasun mailari dagokionez, Uhartek dio mendian zertxobait ibiltzea ohituta dagoen edonorentzako moduko ibilbideak egiten dituztela normalean. "Ez dira zailtasun handiko irteerak izaten, baina, noski, mendian ibiltzeko ohitura izatea komeni da. 20 kilometro inguruko irteerak izaten dira, normalean". Desnibelari dagokionez, irteeraren arabera aldatu egiten da, baina desnibel handiko ibilbideak egiten dituztenean, askotan, autobusa ere izaten dute, tartean geldialdi alternatiboak planteatzeko.

Mendi taldeko kideen profilaz galdetuta, orokorrean, gazte gutxi

dagoela dio antolatzaileak. "50 eta 60 urteren bueltan dabilen jendea da gehiena, eta, gutako asko, taldea sortu genuenetik mantentzen gara. Orduan gazteak ginen, eta orain zaharrak!", adierazi du barrez. Gazteen artean, bestelako ohiturak eta interesak daudela uste du Uhartek, eta horregatik ez direla horrenbeste animatzen. Irteera bakoitzean partaide kopurua aldatzen bada ere, beti hamarretik gora direla dio, eta hogeiren bueltan ere askotan ibiltzen omen dira. "Basaburukoak gara gehienak, baina Ultzamatik eta Imoztik ere etorri izan da jendea irteeretara", gehitu du.

Urtean behin, autobusez

Egun bakarreko irteerak egiten dituzte Orbela taldean. Kanpora mugitu beharra direnean, goizean goiz mugitzen dira, eta iluntze parterako buelta egiten dute etxera. "Normalean, kotxeetan mugitzen antolatzen gara gure artean, baina, urtean behin, autobusa jartzen dugu", azaldu du. Basaburuko udalak lagunduta egiten dute autobusarekin mugitzeko aukera duten irteera hori. "Kasu horretan, autobusak irteeran uzten gaitu eta beste toki batean jasotzeko aukera dugu, alegia, zirkularra ez den buelta egiteko modua izaten dugu", azaldu du.

Askotan, autobusa dutenean, tarteko geldialdi alternatiboak ere jartzen dituzte, pertsona bakoitzak nondik hasi eta noraino egin nahi duen aukeratzeko. "Duela urte batzuk, Ultzamako Bentatik Sorogainera igo ginen, baina autobusarekin geundenez, hiru aukera jarri genituen: Belaten zen lehen geldialdia, Artesiagan bigarrena, eta Urkiagan azkena". Parte-hartzaileek erabaki zezaketen nondik atera eta noraino egin nahi zuten, autobusaren geldialdiak aprobetxatuta.



▲ Orbela taldea, 2012an, Urbasan



Anuen, Artzeki mendi taldea

Aritzuko Isabel Oiartzunek urteak daramatza beste jende batekin mendi irteerak egiten inguru hurbilean, eta duela urte pare bat, urriaren 15eko landa eremuko emakumeen egun bat medio, taldea nolabait 'formalizatu' zuten. "Egun berezi horren harira ateraldi bat antolatu genuen, eta hor proposatu zuten, ea zergatik ez genuen whatsapp talde finko bat egiten horrelakoak antolatzeko", azaldu du Oiartzunek. Artzeki izena jarri zioten taldeari, Anueko mendiari omenaldia egiteko.

Whatsapp taldeko kideek proposamenak egiten dituzte bertan. "Beti inguru hurbilean egiten ditugu, 0km esaten diogu guk. Momentuz, Anuen, Odietan eta Olaibarren egin ditugu irteera gehienak, baina Ultzaman eta Basaburuan ere bai baten bat", dio. Gorosti natura elkartearekin ere egin dituzte zenbait irteera. "Gure ateraldiak ez dira, besterik gabe, tontor bat igotzeko helburuarekin izaten. Normalean, landareen, loreen eta naturako beste zenbait elementuren inguruan azalpenak ematen ditugu. Ikasten ere saiatzen gara", dio Oiartzunek. Azken batean, naturarekiko atxikimendua bultzatu nahi dute, guzti hori, herri desberdinetako jendea ezagutzuz.

Udazkenean, esaterako, onddoak eta udazkeneko fruituak ezagutzeko irteerak egiten dituzte; iaz, inguruko txorien kantuak ezagutzeko ateraldi berezi bat ere egin zuten, eta baita Aritzuko zohikaztegia ezagutzeko beste bat ere.

Normalean lautik zazpirako taldetxoak elkartzen dira irteeran, baina, data esanguratsuetan jende gehiago ere animatzen dela dio. "Taldean Anuekoak gara batzuk, baina Iruñekoak, Odietakoak, Ultzamakoak eta Lanzkoak ere hurbildu izan dira", gehitu du. Lauzpabost orduko irteerak egiten dituzte, normalean, igandetan. Dena den, ibilaldi luzeagoak ere egin izan dituzte, esaterako, aurten GR 225aren zati bat egin dute, Urepeletik Zubirira.

Talde irekia dela nabarmendu du aritzuarrak, eta interesa duen

edonor berarekin harremanetan jartzera animatu du.



Isabel Oiartzun:
Naturarekiko
atxikimendua
garatzea da
helburua, natura
ezagutu eta
errespetatzeko





Udako kakalardo hegalaria, Europako handiena

Izen desberdin asko hartzen ditu arkameluak Euskal Herrian, aurreko Pulunpe aldizkariko olerkiaren atalean, Mikel Tabernaren poesian ikusi zenutenez. Berueten, alkate mozorro deitzen zaio. *Lucanus cervus* kakalardoa udako hilabeteetan ikus dezakegu gure inguruan. Basoetako hildako zuhaitzen egurra soilik jaten dute, eta, beraz, basoaren deskonposizioarako eta bioaniztasunerako funtzio oso garrantzitsua dute. Gazteleraz, 'orein hegalaria' esaten diote

Europako kakalardo motarik handiena da arkamelua, eta ekainaren erdialdetik abuztuaren erdialdera arte ikus daiteke. Zomorro handiak dira, arrek 5 eta 9 zentimetro artean neurtu dezakete, eta, emeek, berriz, 3 eta 6 zentimetro artean. Arrak, handiagoak izateaz gain, adar itxura duten masailezur luze eta indartsuak dituzte –hortik dator gaztelerazko oreinaren kontua–, eta hegan arrek soilik egiten dute. Haritza eta artea nagusi diren basoetan bizi dira arkameluak.

Intsektu berezi honen larbak bost urte pasatzen dituzte deskonposatzen ari den egurrez elikatzen. Haien tamaina txikia izanagatik ere, usteldutako egur kantitate handiak jan ditzakete. Gramo bateko pisua duen arkamelu batek, egun bakar

batean 22,5 zentimetro kubiko egur jan ditzake. Ez da makala!

Esan bezala, larba forman urteak egiten dituzten arren, behin metamorfosia gertatu eta gero, bizitza nahiko motza dute: 15 egunetik hilabete batera arteko bizia izan ohi dute. Emeek, dena dela, arrek baina bizi ziklo luzexegoa dute.

Pixkanaka galtzen doan espeziea

Emeek ez dute hegan egiten. Zuhaitz enbor egoki bat aukeratu eta bertan jartzen dituzte arrautzak, eta arrak iristea itxoiten dute. Iluntzea baino 15 minutu lehenago eta 15 minutu ondoren egiten dute hegan arrek, emeen bila. Hala ere, arkamelu

arren %90 inguruk eguzki-sarrera baino 10 minutu lehenago egiten dute hegan, saguzarrekin batera. Behin emeengana iritsita, arkamelu arrak haien artean borrokatzen dira adarrak diruditen masailezurak erabiliz.

Pixkanaka galtzen ari den intsektu espeziea da arkamelua, izan ere, haien habitata diren basoak, eta batez ere basoetako egur hila, gutxitzen ari da, hildako egurraren 'garbiketa' egiten baita toki askotan. Egur hilak badu funtzio garrantzitsu bat bioaniztasunean, dena den, eta beraz, bertan utzi behar genuke. Espainiako estatuan, 'interes bereziko' kategorian dago sartua Mehatxatutako Espezieen Katalogoan.

Hildako zuhaitzen egurra basoan uztea garrantzitsua da, hori baita arkameluen habitata



▲ Arkamelua edo akalamendia, Leitzan harrapatua. Argazkia, Ibon Azpirotz



XVI. mendeko Igartubeiti baserrira bisita

Denok Bat adinduen elkartetik irailean egin dituzten ekimenen eta irteeren berri emanen digute datozen lerrotan. Igartubeiti baserri-museora egindako bisita eta mendi ibilaldia izan dituzte, besteak beste

Iraileko txangoan Ezkio aldera joan ginen, Igartubeiti baserria ikustera. XVI. mendeko baserria da, zaharberritua. Egin zeneko garaian bezala utzi dute, nolakoa zen eta zertarako egina zen errazago ulertzeko, gaurko ikuspegitik. Garai hartan baserriak indarra hartuzuen, batez ere itsas bestalderainoko arrantzak eskatzen zuen sagardoa egiteko eta etorri berria zen artoa gure ingurura oso ongi moldatzen zelako.

Ameriketatik ekarritako artoak eta patatak baserria handitzea ekarri zuen. Igartubeitin bi aldeetara jarritako harrizko erantsiak eta aurrealdean zurez egindakoa, garai hartakoak dira, lehen dena, baserri osoa, zurez egindakoa baitzen.

Bi pisu dituen eraikuntza da. Beheko solairua, aterpean eta argia

dagoen lekuan egin beharreko lanak egiteko erabiltzen zen. Barnean sukaldea, tximiniarik gabea, gelak, aziendaren ukilua eta sagar prentsaren torlojuaren oinarria zeuden, besteak beste. Goiko solairuan, sagarrak txikitze eta prentsa bidez zukua ateratzeko tresneriak hartzen du zati handiena. Aurrealdean, zati berrian, tresnak egiteko tailerra eta pikorra gordetzeko kutxak daude.

Gure bisitan, prestatuak dauzkaten bi lekuak ikusi genituen, museoa eta baserria. Bi taldetan banatuta egin genuen, txandakatuz, eta bertako gidak, batek euskaraz, besteak, erdaraz, azaldu zizkiguten zehaztasunez hango istorioak.

Baserriko bisita beheko solairutik hasi zen. Eguzkitik sartzerakoan iluntasuna nabaria zen, argirik

gabeko baserrian. Ia dena zurezkoa eta beltza, keak belztua. Beheiti guzia ikusi ondoren goiko solairura igo ginen eta han sagarra zen nagusi, solairu ia erdia sagardoa egiteko erabiltzen baita. Bigarren solairuak kanpora ateratzeko irteera laua du, gurdia sartzeko modukoa. Behin bisita bukatzerakoan, handik atera ginen museora joateko.

Museoan baserriko tresneria ikusgai daukate eta gainera bideo bat ikusi genuen, baserriko bizimodua azaltzen zuena. Altzariak eta etxe-tresnak nola egin eta nola erabiltzen zituzten ikusten da, eta baita berotasuna eta argitasuna nola lortzen zuten ere. Baserriko garai bateko bizi modu erreala nolakoa zen erakutsiz, gogorra iruditzen zaigu gaurko errealitatetik begiratuta.





Baserria eta museoa ikusi ondoren, bazkaltzeko bidea hartu genuen, Legazpiko Aitxuri jatetxera, hain zuzen. Garaiz iritsi ginenez, herrian barna ibiltzeko tartea izan genuen bazkal aurretik. Hitzartutako menu goxoa jan genuen, zerbitzu adeitsu batek lagunduta. Bazkal ondoren, batzuk musean eta besteak Legazpiko herriko txokoak ikusten pasa genuen arratsaldea, autobusa hartu eta etxera itzuli aurretik.

Bestalde, inguruko ibilaldiei ere hasiera eman diegu irailaren azken astelehenean. Lehenbizikoa Igoan barna izan zen, Leontziok prestatua eta gidatua.

Goizeko 10:00etan hasi ginen herrian eta bidez bide menditik

barna ibili ziren ibiltariak, eguerdiko 13:00 etarako herrira itzuliz. Egun ederra egin zieten paseoaz disfrutatzen eta oso gustura geratu ziren, hurrengorako gogoz geldituz.

Udazkeneko mus txapelketari ere eman diogu hasiera, 24 bikoteren parte-hartzearekin.

Eta, Yoga eta Gimnasia ikastaroak ere hasi dira, bietan taldea egiteko adina pertsonen izena eman dutelako. Aurten Ultzamako udalak utzi digun gimnasio ondoko aretoan izanen dira. Urriko txangoa Elizondoko ferietara izanen da, urteroko legez. Horri buruz izanen da urriko gure kronika. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat
Jubilatu
Elkartea**



.. Sartu aurretik baserriaren istorioaz jabetzen .. ▲

Zorionak Zorionak !



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com





Bisita gidatuak Abaunzko kobazuloan

Arraizko Kontzejuak eta Abaunzko kobazuloan lanean ari den arkeologo taldeak deituta, auzolana egin zuten irailaren bukaeran. Urriaren 6an, berriz, bisita gidatuak egin dituzte, herritarrek bertara hurbiltzeko.

Lau bisita gidatu egin dituzte, bi euskaraz, eta bi gazteleraz. Izan ere, Ultzamako udalak jakinarazi duenez, iaz hasitako lanei segida eman nahi izan diote aurten, eta aurrerapauso garrantzitsuak eman dituzte gainera. Harria kentzeko eta ateratako lurra mugitzeko helburuarekin egin dituzte auzolanak herritarrekin. Abaunzko kobako lan arkeologikoei lotuta, 2022-23an egindako lanei buruzko informazio guztia jasoa dago ikerketa artikuluan batean. Ondoko QR kodearen bidez sarbidea duzue ikerketa lan horietara.



Euskara ikasteko aukera, eskualdeko AEK eta IKA euskaltegietan

Urtero bezala, martxan dira honezkero eskualdeko euskaltegiak matrikulazio kanpainak. Aurreko urteetan bezala, AEKk emanen ditu klaseak Ultzamako, Atezko, Anueko, Odietako eta Lanzko herritarrentzat. Basaburuan eta Imotzen, berriz, IKA euskaltegia ariko da.

AEKren kasuan, klaseak urriaren 1ean abiatu dituzte, baina Mattin Cazabon koordinatzaileak Esan Erran irratian nabarmendu zuenez, aurrerago ere atea zabalik izanen dituzte, ikasteurtean zehar beste ikasleren batek hasi nahiko balu. Aurten, ikastaro guztiak Larraintzarren izanen dira, eta, nobedade bezala, hastapen mailako bi klase atera dira: astelehen eta asteazkenetan izanen dira 16:00etatik 18:30ak arte. Gainera, B1 eta B2 mailak izanen dira astearteetan eta ostegunetan, 17:00etatik 19:30ak arte; eta, C1 maila asteazkenetan, 16:30etatik 19:30etara (beste hiru ordu etxean egin beharko dira). Izena emateko: 636 973 923 telefonoan edo mattin-k@aekeus helbidean.

IKA euskaltegiaren kasuan, berriz, Imotzen eta Basaburuan izanen dira klaseak. Imotzen, Etxalekun biltzen dira, eta Basaburuan, berriz, Jauntsaratsen edo Aizarotzen. Ordulegiak adosteko ikasleekin bilera egiten dute urtero, eta horrela izanen da aurtengoan

ere. Euskalduntzeko maila guztiak eskainiko dituzte, oinarrizko mailatik hasi eta C1 arte. 948 610 776 telefono zenbakian edo leitza@ika.eus helbide elektronikoan eskuratu daitezke informazio guztia.

Diru-laguntzei esker, bi euskaltegiak arduradunek azpimarratu dute matrikularen %100 finantzatzen dela, beraz, doan ateratzen zaiola kurtsoa ikasleari. Aukera ederra, beraz, euskara ikasten hasteko.





Irakasleen grebak jarraipen ertaina izan zuten eskualdean

Basaburuko Oihanzabal eskolan jarraipena zabalagoa izan zen; Larraintzarko ikastetxean laurden batek egin zuten greba.

Grebalarien aldarrikapen nagusiak ratioak jaitea, lan gainzama murriztea, behin-behinekotasuna txikitzea eta erosmen ahalmena berreskuratzea izan da. Steilas, ANPE, Afapna, LAB, CCOO, ELA eta UGT sindikatuek batera deitu zuten grebara, irailaren 26an.

Larraintzarko ikastetxean laurden batek egin zuten greba, 42 irakasletik, 12k. Horietatik bakar bat izan zen Lehen Hezkuntzako irakasleen artean eta hamaika DBHko irakasleak izan ziren.

Oihanzabal eskolan hiru irakaslek egin zuten greba eta bost ume besterik ez ziren eskolara joan.



PROMOZIOARAKO KOMUNIKAZIOA

PROMYZAS

**LANEKO ARROPA PERTSONALIZATUAREN BILA ZABILTZA?
ZURE ENPRESA EDO KIROL TALDEAREN LOGOAREKIN?
OPARI BEREZI BATEN BILA ZABILTZA?**

*Gutxieneko eskaera 50 unitate



☎ 620 85 23 30

✉ info@promyzas.com

🌐 WWW.PROMYZAS.COM



Kalitate goreneko konposta lortu dute Larraintzarko ikastetxean

Duela urtebete, iazko irailean jarri zuten Larraintzarko eskolan konpostatzeko gunea martxan, Sustraiak proiektuaren baitan eta Iruñerriko Mankomunitatearekin elkarlanean. Irailaren 27an, konposta ateratzearekin batera ekitaldia egin zuten ikastetxean. Bertan izan ziren jantokiko eta eskolako arduradunak eta Ultzamako Udaleko eta Iruñerriko Mankomunitateko ordezkariak.

Larraintzarko ikastetxeko jantokiko arduradun eta langileak arduratu dira urte osoan konposta behar bezala egiteaz, eta Elkarkide enpresako kideak, berriz, asteroko mantenimendu lanez.

Guztira, 2023-24 ikasturtean, astero, 80 kilo hondakin bota direla kalkulatu dute. Horri inguruko kimaketetako egur xehatuak gehituta, urte osoan 3.000 kilo inguru batu dira, eta behar bezalako eraldaketa eginda, A mailako konposta lortu dute.

Konpostatze prozesuan parte aktibo izan diren ikasleek konpostaren zati bat etxera eramateko aukera izan

dute. Mankomunitateetik azaldu dutenez, haien etxeetan konpostatzen hasteko aukera zabaltzea ere izan da ekimenaren helburua. "Oraindik etxean konpostik egiten ez badute, Mankomunitateari konpost-ontzi bat eskatuta egiten has daitezkeela gogoraraztea komeni da", adierazi du Beatriz Ihaben kideak.



Iraizozko poligonoko supermerkatu berriaren lanak hasi dira

Iraila bukaerarako Elordi poligonoko partzela hesitu eta lurra berdindu dute, eta, dena ongi bidean, urrian hasiko dituzte lanak. Horrela, promotoreek datorren

urte erdialderako martxan izanen dela aurreikusten dute. Lizasoko denda itxi zenez, Ultzamari zerbitzu hori eskaintzea du xede.





Palestinaren aldeko bizikleta martxa egin dute eskualdean

Irailaren 14an Palestinaren aldeko bizikleta martxa egin zuten Basaburuan eta Imotzen. Euskal Herritik kanpo egin izan den ekimena da, eta BDZ kolektiboak (Boikot, Desinbertsioak, Zigorak kolektiboak) Nafarroara ekarri nahi izan du oraingoan. Nafarroako eskualde desberdinetan egin zituzten bizikleta martxak egun berean. Gurean, Jauntsarastik abiatu eta Latasaraino egin zuten.

Hogei bat lagun bildu ziren Jauntsarasko eskolan goizean jarria zuten hitzordura. Handik, Etxalekura joan ziren, eta herritarrek harrera beroa egin zioten. Ondoren, Latasara segitu zuen bizikleta martxak, Biltegian antolatua zuten egitarauari hasiera emateko. Adierazpena irakurri eta argazia egin eta gero, bermut musikatua izan zuten, DJ Hannibal Selecterren laguntzarekin. Aldarrikapen giroan eta eguzki goxoak lagunduta pasa zuten eguerdia ekimenera hurbildu zirenek.



Malores Etxeberriak utzitako gakoak

Uztailaren 20an Malores Etxeberria (Zaldibia, 1957) gurean izan zen, Hernaniko Udaleko euskara teknikari ohia. 2022an erretiroa hartu bazuen ere, ez da euskararen aldeko borrokatik erretiratu. Eskarmentu handiko erreferentea, dudarik gabe, euskara gure karriketan bizkortu nahi dugunontzat. Hala, hitzaldi-iritzi trukea antolatu zuen Ezpela Euskara Taldeak udako arratsalde hartan, Jauntsarasko Apeztegiberriko areto batean eta giro goxoan, Ultzamaldeko hainbat euskaldun eta euskaltzalerekin batean

Jakina da Ezpela Euskara Taldea kezka batek eraginda eratu zela: Ultzamaldeko hitzunok gero eta euskara gutxiago (eta makurrago) erabiltzen dugu. Horretaz ohartarazita, alerta jotzen hasi ginen gure bazterretan kezka hori gizarteratzeko. Gogoan izanen duzue udaberrian egindako kanpaina hura, eskualdeko guraso zahar eta berrien bideoak. Gure iduriko, ekimen arrakastatsua eta zirraragarria izan zen.

Lanean segitu beharra zegoen, ordea, eta eraginkoarragoak izateko estrategia bila, Malores Etxeberria gonbidatu genuen. Topaketa hartan, Etxeberriak gure burua ahalduentzeko ideia sorta hau utzi zigun:

1. Lehenik eta behin, kontziente izan gaituzen egoera soziolinguistikoaz

eta ez erori ameskeriatan: ez dezagun errealitatea edulkoratu. Plazeborik ez!

2. Beldurrik ez, izan gaituzen ausart. Argudioez jantzi beharra dugu, eta aldarrikatzen dugun horren ziurtasun osoa izan.

3. Komunitatea ahaldundu beharra da. Euskaraz aritzea ez da baztertzailea, ez gara intoleranteak erdaldunen aurrean euskaraz aritzean.

4. Gaia ideologizatu behar dugu, bizitzeko beste modu baten alde borroka egiten ari gara. Gatazka agerian jarri beharra dugu.

5. Borroka makarragoa izan behar du, herritarragoa, ez hain formala edo instituzionala. Bistan dago, beste borroka sozial batzuekin batera lan egitea onuragarria da.

“Euskaraz aritzea ez da baztertzailea

”

6. Legeari zirrikituak bilatu behar zaizkie. Orobat udalerrietan "aldeko" alkatea izatea komeni zaigu. Ekintza ederra litzateke, adibidez, ibarreko jaioberriekin kanpaina berreskuratzea, hau da, ongietorri opari bat egitea, familia hori euskararantz ekartzeko.

7. Besteak nola erakarri euskarara? Orain artekoak huts egin du. Asmo handiagoeekin arizan behar dugu: erran nahi baita, besteei exijitu, konpromisoak eskatu.

8. Ahalik eta euskara hutsez funtzionatzen duten ekintza gehien antolatu, eta horietan erdaldunendako baliabideak jarri.

9. Gurasoei "Zure euskara oso ona da" bezalako mezuak transmititu behar zaizkie. Halaber, eskolako maisu-maistrekin koordinatu eta lan egin beharra dago, eta haiek (ere) haurren familiengan eragin beharra dute.



Alazne
(Ezpela Euskara Taldea)

Izan bitez iparrorratz ideia horiek guziak gure jardunean. Esker mila, Malores!



Malores Etxeberria ▲



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA



Ultzamar talde batek sortu zuen duela mende erdia baino gehiago

Bertako ospakizunetan kanpoko taldeak ekarri behar zituzten, Iruñetik, batez ere. Horrela, ilusioak mugituta, herritar talde bat bildu eta Ultzamako dantza taldea sortu zuen. Hamarkada luze bat iraun zuen, baina orduan gauzak ez ziren errazak, eta azkenean desegin zen.

Data zehatzik ez dakigu, baina 50 eta 60 urte artean pasa dira Ultzamako dantza taldea sortu zenetik. Taldetik 40 bat lagun pasa ziren, euskal dantzak ikasteko eta bestetan aritzeko helburuarekin. Edilberto Goldaratz Lizasok kontatu digu: "Neskak sartzen ziren baina mutilak sartzea zaila izaten zen".

Udalaren laguntza

Garai hartan Jose Maria Iribarren arizenidazkari Ultzamako Udalean, eta haren laguntza izugarria izan

zen. Udalak ordaintzen zituen irakaslea eta trajeak. Entseguak, udaletxeko batzar gelan egiten zituzten, igandero. Edilberto Goldaratz: "Polita zen, ilusioa genuen". Irakaslea, lehenengo, Donostiatik etortzen zen, Alkozko Egaña familiak ekartzen zuen; eta, ondoren, Iruñetik: "Donostiako irakasleak utzi zuenean Iruñetik etorri zen Luis Oraien". Auzako taxista Sebastian Anduagak eramaten zituen irakaslea eta ikasleak eta udalak ordaintzen zuen taxia ere.

Hainbat oztopo

Aipatu bezala, udaletxeko batzar orokorren gelan ikasten zuten, igandero. Baina eskola kontzentrazioaren ondoren Larraintzarko ikastetxea eraiki zenean, gela bat eskatu zuten ilusioz. Orduko zuzendariak, ordea, Arraizko maisuak, ezetz esan zien. Goldaratz: "Entseatzeko eta gauzak gordetzeko nahi genuen, makilak, saskiak, materiala. Baina orduko zuzendariak ez zigun utzi eta kanpoan entseatzen genuen, kristoren hotzarekin". Igandeko saioez aparte, ahal zen tokian biltzen ziren. Edilberto Goldaratz: "Batuetan ukuiluetan ere elkartzen ginen batzuk".

Harat eta honat

Behin dantzak ikasita, jendaurrean aurkezteko garaiak ere etorri ziren. Edilberto Goldaratz: "Herriko bestetan eta Alkozko Ama Birjinaren prozesioan, adibidez. Azken honetarako udaletxetik (Larraintzartik) Alkotzeraino oinez joaten ginen. Ezkontzetan eta meza berrietan ere deitzen ziguten, eta Santurbera beti joaten ginen. Baita inaugurazioetara ere, eskolan edo Danone Fabrikan, lehenengo harria jarri zutenean, edo golf zelaia inauguratu zutenean, adibidez". Lizasoko Jesus Latasa ere, Alkotza ezkondua, taldekoa izan zen: "Zeinen ongi pasatzen genuen! Ondoren,



Edilberto Goldaratz, Juani Barberena eta Jesus Latasa, hurrenez hurren eta ezkerretik eskuinera



txorizo eta gazta pixka bat jartzen ziguten eta horrekin zoriontsu ginen, ez genuen gehiagorik behar!". Kanpora ere bidaiatzen ziren, Iruñerrira, beste herrietara eta Erriberara, esate baterako. Alkozko Juani Barberenak, Latasaren emazteak, adierazi bezala: "Hori alizientea izaten zen, horrela kanpora ere ateratzen ginen".

Bordatuak

Bordatutako txaleko eta ikur ederrak ere bazituzten, Juani Barberenaren ahizpa den Maria Josefa Barberenak eta Lizasoko Rosa Mari Latasa koñatak egin zituzten. "Nik txaleko bat gorde nahiko nuke, baina nesken trajeekin gertatu bezala, uste dut zorriek jan zituztela...", azaldu digu Barberenak. Ultzamako armarría jarri zuten ikurran eta txalekoetan.

Edilberto Goldaratzek penaz aitortzen digu taldea desegin behar izan zutela, oso zaila zela aurrera ateratzea: "Gauzak zailak zirenean sortu genuen taldea, eta orain errazagoak direla, ez da konpromisorik hartzen, pena da. Orduan ilusioa zegoen". Ondoren beste talde bat sortu zen, baina hura ere desegin zen azkenean, Barberenak kontatu digunez: "Mari Cruz Iraizotzek, Jose Mari

Etxeberriak eta nik neuk, ez dut uste gehiagorik lagunduko gintuenik, beste talde bat sortu genuen eta urte pila aritu ginen. Baina gero, guk utzi eta egun batetik bestera desagertu zen". Eskolarekin ere eskualdeko ume eta gaztetxoak aritu ziren hurrengo urteetan. Barberena eta Latasaren alabak, esate baterako, baina hori ere amaitu zen. Juani Barberena: "Alabak Iruñera, San Ferminetara eramaten nituen, umeak zirenean. Hiru bat belaunaldi aritu izanen ginen osotara. Gero desagertu zen eta pena handia da". Edilberto Goldaratz ados dago: "Bai, pena handia da Ultzaman dantza talderik ez izatea".

Ultzamako Ingurutxoaren berreskuratzea

Iraizozko Martin Lizasok, Iribarreneko etxeokak, eta Juanita Lasagak, Elgorrenekoak (el cerero), berreskuratu zuten eta irakatsi zieten Ultzamako Ingurutxoak. Gainera, Txakarrankua, Makil Dantza, Sagar Dantza, Kaxkarotz, Biñakoa eta bestelakoak dantzatzen zituzten. Edilberto Goldaratz: "Txakarrankuan hau altxatzen genuen airean (irriz, Jesus Latasa seinalatuz)". Juanita Barberena: "Pazientzia handia izan behar zuen Oraienek!", Latasa: "Haserretu ere, haserretzen zen (irriak)".



“ Edilberto Goldaratz, Pena handia da Ultzaman dantza talderik ez izatea ”

Ultzamako dantza taldea

- **Arraizkoak:** Miguel Angel Ezkurra, Pontxo Urdaniz, Miguel Angel Huarritz, Begoña Huarritz, Mertxe Berasain, Kontxita Berasain.

- **Alkozkoak:** Maria Josefa Barberena, Juanito Ziaurritz, Juani Barberena, Mertxe Berasain, Alfonso Ibarrola, José Ignacio Olague, Jose Mari Etxeberria, Florentino Beuntza.

- **Iraizozkoak:** Roberto Apeztegia, Juanito Etxart, Iñaki Goñi, Edilberto Goldaratz, Marivi Ziganda, María Dolores Apeztegia eta Geno Etxart.

- **Eltso:** Mari Cruz Iraizotz.

- **Gerendiain:** Asunción Beuntza, Maria Angeles Betelu.

- **Urritzola:** Juan Fermin eta Maria Jesus Zia.

- **Lizaso:** Antotxu Ezkurra, Jesus Latasa, Kontxita Osakar, Koro Marturet.

- **Eltzaburu:** Maria Jesús Gurbindo, Jose Luis Mutuberria, Javier Larraiotz, Jose Manuel Oitz, Mari Tere Oitz.

- **Larraintzar:** Francisca, Pili, eta Miguel Mari Larraiotz, Trini Anzizu.

- **Auza:** Mertxe Anduaga.

Inor kanpoan ez utzi izana espero dugu.



Erbitiko pestetan



Etxalekuko pestetarako herritarrek auzolaenan



Erasoko pestak



Javi Erice ogi banatzailea jubilatzen dela eta, eskerrak eman dizkiote bezeroek



Erasoko pestak



Illarregiko bestak



Alkozko bestak. Herri kirolak



Oihan eta Oinatz Bildarratz, Eltzaburuko bestetan



Iraizozko bestak



Haurren jolasak Alkozko bestetan



Gartzarongo pestak



“Maite ditut, maite, gure bazterrak... zer-ikasía ematen digutenean”

Berriki Imozko euskalkiaren inguruko ikerlana egin du Alazne Fernandez de Muniain erasoarrak, baina Pulunpeko kolaborazio berri honetan, eskualde osoko hizkerari begira jarriko gaitu. Bada, ea zer dakarkigun gaurkoan!

TXIPIENKARRIKA (Lantz)

ARGIBEL (Igoa)

APEZALABAKI (Gaskue)

USPEL (Leazkue)

OLANZELAI (Hiriberri-Atetz)

ALORMAKUR (Zenotz)

MUNDUMALKORRA

Leku-izen horietako batzuk ezagunak zaizkizue, ezta? Beti ez dugu argi izaten, ordea, beren esanahia. Gure mendien eta parajeen mintzoa da, eskualde honetako jolasa edo... solasa. Izan ere, toponimoek aukera bikaina eskaintzen digute Ultzamaldeko jolasa ulertzeko eta ezagutzeko.

Lehenbiziko kapitulua dugu eta zerrendako lehendabizikoari begiratuko diogu: *TXIPIEN KARRIKA* edo *TXIPIEN KARRIKA*. Dakigun bezala, *txipi*, *ttiki*... horiek denak ‘txiki’ edo ‘ttipi’ren aldaerak dira. Baina, gaurkoan, toponimoaren bigarren elementuari helduko diogu: ‘**karrika**’ hitzari, alegia.

Hasi baino lehen, zertzelada historiko arin bat. ‘Karrika’ hitza ipar eta ekialdeko euskal autoreen lanetan ageri da nagusiki. Lehen aldiz XVI. mendean lekukoturik dago, Joanes Leizarragak Biblia euskaratzean erabili zuenetik, Joana Albretetako erreginak Testamentu Berria euskaratzeko eskatu baitzion. Orduetik hona hamaika lanetan bilduta dago ‘karrika’.

Txipinkarrika Lanzko toponimoa da, baita *Txipinkarrikako borda* ere. Egiatzki, Nafarroa osoan barna ageri zaigu ‘karrika’ hitza: *Karrikasendo* Goñin eta Utergan, *Karrikabarren* Oloritzen, *Karrikaburua* Auritzen... *Karrikestu* elkarteak dugu Etxarri-Aranatzen... *Karrikiri alorra* Miranda Argan (‘Pieza de Karrikiri’), baita Murchanten ere, non ardo tempranillo batek *Karrikiri* izena baitu. Jakina, Zaraitzun, Baztanen, Luzaiden... ere bai. Nafarroako mapa guzian ‘karrika’ hitzaren arrastoak ditugu, ipar-hego, ezker-eskuin. Alderdi batzuetan aspaldixkotik ez darabilte euskara, baina paisaiak gordetzen du.

Agerikoa da, beraz, oso gurea den hitza dela ‘karrika’. Eskolan, ordea, ‘kale’ erakutsi digute, hedabideetan ere ‘kale’ hitza erabiltzen dute eskuarki. Gurean ere aise barneratu dugu... nola ez! Iruñera joan eta kaleak nonahi. Hanka-sartze sakona izan zen, nire ustez, bere garaian Iruñeko karriken plakak euskaratzean Euskal Autonomia Erkidegoko ereduari segitzea... Nolatan ez zuen Iruñeko Udalak gorde Nafarroako euskarak bere-berea duen hitza? Aukera bikaina zuen hiriburu zaharrak... Paisaia linguistikotik anitz ikasten baita.





Laburbilduz, 'karrika' zokoraturik gelditu da. Ez dakit zuek, baina nik 'kale' hitzari sekulako erdal kutsua hartzen diot: 'calle' -> 'kale'. Ederragoa iruditzen zait 'karrika', *karrike*. Egiari zor, biak ala biak maileguak dira, latinetik heldu dira aurki ('calle' eta 'carrer' bezala); baina, ez dakit, niri kuttunagoa zait 'karrika', beharbada oso gurea delako eta, galzorian dagoen guztia bezala, babestera jotzen dudalako.

KARRIKA hitzaren aldarrikapena da hau. Arestian esan bezala, paisaia linguistikoa zaintzea arrunt inportantea da, hiztunok horrela (ere) ikasten dugulako. Zorionez, Nafarroako beste herri batzuek sentsibilitate handiagoa erakutsi zuten beren karriketako plakak euskaraz paratzean: adibidez, "Calle

Mayor" izendatzeko, *Nagusia Karrika* dugu Iruberrin eta, hobekixeago jokatuta, *Karrika Nagusia* dugu hala Zangozan nola Artazun. Lantzen, ordea, *Santa Cruz kalea* dugu... Hori pena! Euskara aspaldi galdu zuten horiengandik ikasten hasi beharko dugu.

Oroitarazi beharrean nago 'karrika' 'kalea' bezain euskara batua dela, bata bestea bezain zuzena. Elhuyar Hiztegian 'karrika' bilatuz gero, letra etzanez *GN/Ipar* markak azalduko zaizkigu: hau da, euskara batua da baina zehazten zaigu goi-nafarrerari eta Ipar EHri dagokion hitza dela.

Buka dezagun testua muskiztar baten erranak ekarriz: *Lenao, karrikek-eta dena arrie ta loie zen, ta goai, oso ona eztao, biño betire ooki daude* 'Lehenago, *karrikak*-eta dena

harria eta lohia zen, eta orain, oso ona ez dago, baina betiere hobeki daude' (*Imozko euskara*, Apalauza: 2008). Gure xaharrek naturalki ibiltzen duten hitza dugu 'karrika'.

Ikus dezagun, azkenik, euskalkien mapa eta erreparatu diezaigun gure eskualdeari:

Etxalekun, karriké Igoan, kárriké Suarben, karrike

EHHako mapan hala ageri ez bada ere, Berueten ere ohiko hitza da *karrike*: izan ere, **karrikerrondán** omen dabil alferkerian edo deus produktiborik egin gabe dabilena. Karriketan ikusiko dugu elkar, izan ongi!



Alazne
Fdez de Muniain

439. Mapa: calle / rue / street

GALDERA: 17130; ALG: 992; ALEA: VI, 1571



	kalle
	karrika
	karrikako bide
	erriko bide
	arrua
	herri
	ets(e)k(arte)
	bidetarte
	atari
	kale
	karrike
	kharrika

• Baserri giroetan eta herri txikitzen oro har, "kalca" eta "kharrika" hitzek 'le village, le bourg, agglomération / pueblo' edo etxe multzoa adierazten dute, 'la rue / calle' baino gehiago.

Amezket: *Kalca jexxi* esaten dute 'baserriak herrira joatea' adierazteko.
Orexa: *Emen nola ezpaitaon kalcaik...* "Kalca noa" eo "kalca jexxi ta emengo neska". *Donostia ta Tolosa ta oiri* [esaten zaie] kalca...
Pasala: *Nou zuz? ta kalca! Ta kalca orrek esan nai du ba guaseta o Lesoa, o Sanyama, errita...*
Leitza: umeci "zoazte kampora!" esateko *zoazte atariri!* esaten diete. *Bide* edo *kamio* ere erabiltzen dute. "Kale" hitza geroago sartua omen da.
Etxarri: *Emen eta izaten kallé. Emen etsékartié esán izánuhi záyx.* "Kalle" Iruñekoak dircla dio lekukoak (berdintsu diote Odritzen ere).
Eskurra: *Emen kalca ezpaita nonbratzen, emén atari...* "séglí atárita"... Hala ere, bada herrian "Goikó kalea" izeneko auzo bat.
Sara: "Karrika" eta "plaza" berdintzat ditu lekukoak (antzerka diote Uharte-Garazin eta Insarri ere).
Baigorri: *Karrika* egin 'huts egin' da, merdebaldean "kale egin" bezala.
Pagola: *Plaza, le bourg eta bidia re deitzen ahal dízi kharrika.*



Laura Gurbindo: “Sendabelarren inguruko ezagutza galtzerik nahi ez nuelako hasi nintzen klaseekin”

Duela hamalau urte iritsi zen Beramendira Laura Gurbindo, eta gustura bizi da bertan geroztik. Iruñekoa izan arren, umetatik izan du ingurune naturalarekin harreman estua. Izan ere, Aranzadiko parkeko Gurbindo etxean jaioa da bera. Barcinak Aranzadiko baratzeak kendu eta bizilagunak handik bota zituztenean etorri zen Basaburura. Sendabelarren eta onddoen munduan buru-belarri dabil Gurbindo.

Nondik dator kizu sendabelarreko zaletasuna?

Etxean asko erabiltzen ziren sendabelarrak, eztulbelarra eta antzekoak batez ere. Nire izeba batek asko kontrolatzen zuen, adibidez. Baina, medikua ere etortzen zen etxera, bi esparruak elkarren osagarriak ziren. Niri interesa zerk piztu zidan? Bada, etxean ikuste horrek, seguraski, eta, agian, txikitatik gaixotasunekin izan dudana harremanak ere bai. Horrek, nolabait, osasun-alorraz interesatzera bultzatzen zaitu.

Nola hasi zinen?

Etxean izan nuen lehen harremana, baina, aurrerago, adineko gizon batekin, Markos Etxeberriarekin hasi nintzen benetan ikasten. Barbastroko gizon bat zen, Iruñean bizi izan zen zenbait urtez, eta gerora Ezkurrara joan zen. Berarekin gehiago ikasi nuen, Iruñean klaseak ematen hasi zenean. Baina, Ezkurrara baserrira joatea erabaki zuenean, taldea bertan behera gelditzea eta sendabelarreko zaletasuna galtzeak pena ematen zidan, eta orduan hasi nintzen ni klaseak

ematen. Orduan ohartu nintzen uste nuena baino gutxiago nekiala! (barreak), baina ikasketarekin jarraitzeko modu bat ere izan zen.

Aspalditik ari zara sendabelarren mundu honetan, beraz?

Pentsa, 22 urte nituenetik ari naiz ikastaroak ematen, 40 urte inguru daramatzat honetan. Arnedilloko eskolan medikuntza naturaleko ikasketak ere egin nituen, eta gero, Iruñeko beste eskola batean ere segitu nuen ikasketekin. Eta, ikastaroak, milaka egin ditut: dietetika, iridologia, masajeak... baina, sendabelarretan espezializatu naiz, batik bat.

Hau da zure ogibidea?

Bai, baina lan gutxi egiten dut gaur egun. Bere garaian, Iruñeko udaletik proposatu zidaten ikastaroak ematen hastea, eta orduan hasi nintzen formalki honetan lanean. Segituan, beste herri batzuetatik ere deika hasi zitzaizkidan. EHNE sindikatuarekin ere urteak egin ditut lanean, Hego Euskal Herri osotik mugitzen nintzen ikastaroak ematera. Garai batean, ikastaro asko diruz laguntzen zituzten, eta, orduan, azkar betetzen ziren. Baina, krisia eta gero murrizketak egon ziren, gaur egun ikastaroak norbere dirutik ordaintzen dira, eta jende gutxiago animatzen da.



Sendabelarrentzat inguru paregabea bizi garela dio Gurbindok ▲



“

Sendabelarrentzako inguru paregabean bizi gara: denetik dugu hemen, eta oso gutxi kutsatua

”

Herritarren partetik geroz eta interes handiagoa sumatzen duzu sendabelarreko?

Bai, zalantzarik gabe. Duela 40 urte lau katu arraro ginen, baina, gaur egun, sendabelarrak erabiltzen dituen jende asko dago. Sendabelarren kontsumoa asko igo da, eta naturopatarengana jotzen duen herritar asko dago gaur egun. Asko zabaldu da gaia, bai.

Eta, medikuntza ofizialean?

Medikuntza ofizialean ere erabiltzen dira sendabelarrak, bai, badira landareak errezetatzen dituzten medikuak. Nire ikastaroetara, esaterako, mediku asko etortzen da, eta erizainak ere bai. Garai batean deabrutuak geunden, baina gaur egun ez dut inondik inora

hori entitzen. Egia da, medikuntza naturalaren alorreko jende askok ere begitan hartu duela medikuntza ofiziala. Denetik dago toki guztietan. Idealena bi munduak elkarren osagarri izatea litzateke. Medikuntza ofizialean teknologiak asko erreztu ditu gauza asko, eta hori oso ongi dago. Baina, beti ongi funtzionatu duen belar batek funtzionatzen segitzen badu, zergatik erabiliko dugu medikamendu toxiko bat? Osagarriak dira biak, zentzuarekin jokatzea da gakoa, nire ustez.

Sendabelarren aldetik ingurune paregabea dugu hemen, ezta?

Bai, hemen inguruan asko erabiltzen diren ehun sendabelar baino gehiago ditugu. Intxusa, plantenbelarra, azeribuztana, añarra, ilena, pasmobelarra, berbena, eztulbelarra, birikabelarra... denetik dugu hemen. Eta, gainera, oso gutxi kutsatua dago, baso asko baitugu eta errepide eta fabrika gutxi.

Eskualdeko herritarrek badute interesik?

Bai, eskualdean ikastaro franko eman ditut urteotan, eta jende asko etorri da. Esanen nuke, 90 lagunetik gora pasatu direla klaseetatik, eta

hori asko da. Adinari dagokionez, denetik egon da: 18 urteko jendetik hasi eta 70 urtetik gorakoetaraino.

Sendabelarrak ze forman erabiltzen dituzu, ze produktu egiten dituzu ikastaroetan?

Olioak, pomadak, kremak, estraktuak, xaboiak, txanpuak... etxean egin daitezkeen gauzak erakusten ditut, azpiegitura handirik eskatzen ez dutenak. Nire ikastaroak, normalean, lau orduko zortzi saio izaten dira. Alde teorikoa zati txiki batean lantzen dut, eta, gero, kanpora ateratzen gara sendabelarrak ezagutzera eta biltzera. Gero, horiekin eraldaketak egiten ikasten dugu, pomadak, olioak eta beste.

Beti argi izan duzu zuk ikasitako hori beste jendearekin konpartitu nahi zenuela?

Bai, hain zuzen horrexegatik hasi nintzen klaseak ematen, sendabelarreko jakinduria gal ez zedin. Niretzat, ez du zentzurik gordetzeak. Irakastera zoazen edozein tokitan, sumatzen dute ezer ez duzula zuretzat gordetzen, eta, orduan, haiek dakitena ere irakasten dizute. Toki guztietan ikasten da zerbait berria.

Onddo eta zizen inguruko ikastaroak

Sendabelarren ikastaroak ez ezik, onddo eta zizen ingurukoak ere urtero antolatzen ditu Gurbindok. Gorosti zientzia elkartearekin ikasi du onddo eta zizen inguruan, eta hastapeneko ikastaroak eskaintzen ditu. Udazken honetan, esaterako, Larraintzarren eta Irurtzunen emanen ditu klaseak.



▲ Hego Euskal Herri osoan eman izan ditu ikastaroak Gurbindok



Martin Aizkorbe hil zuten

Aurreko Pulunpen kontatu genuen nola, 1924ko irailaren 27an, Iruñean izan zen epaiketean, bizi guziko kartzela eman zieten Berueteko Goñi hiru anaiei. Gaur segituko dugu kontakizunarekin, segida latza izan baitzuen.

Baina gauza ez zen horretan gelditu.

Bizi guziko kartzela zigorra bai, baina ez zen heriotza zigorrik. Atsegin hartuko zuten goñitarrek trantze ikaragarri hartatik erdi onik ateratzean.

Baina, zoritxarrez, kontua ez zen horretan gelditu. Nafarroako Militar Buruak, Manuel Sanchez de Ocañak, Burgosko Jeneral Kapitainari bidali zion sententzia legea betez, baina honek epaia onartu ez beste maila bateko zigorra behar zuela eta. Horrela, Madrilgo Justizia militarreko Kontseilu Militar

Gorenak eman beharko zuen behin betiko epaia.

Nolako beldurra eta ikara sortu ote zitzairen goñitarrei berekin batean zeuden erreboluzionarioei gertatua bertatik bertara ikustean! Nolako ezinegona! Beran, ia bi hilabete beranduago atxilotutakoak, Iruñean absolutu eta, hala ere, Madrilen heriotza zigorra izan zuten. Azkar egin zituzten tribunalek beren lanak eta, Iruñeko kartzela berean, beren begien aurrean hil zituzten. Ez, Gobernua ez zebilen txantxetan. Pentsa, Berakoak Iruñean epaitu zituen tribunaleko kideak arrestatu egin zituen, epaia ematerakoan zuzenegi ibili zirelako!

Eta beren sententzia ateratzen ez Madrilen. Zergatik ote zen anarkisten afera hilabete batez garbitu eta berena hainbeste luzatzea? Horrela luzatzearekin, esperantza ere izanen zuten ba beruetarrek!

Noizbait, 1925eko ilbeltzaren 20an jarri zuten epaiketaren eguna. Eta Iruñeko epaiketean parte hartu zuten guzien aurrean egin zen (Tribunaleko kideak, abokatuak...) baina hiltzaileak bertan egon gabe.

Eta Kontseilu Militar Gorenak behin betiko epaia: **HERIOTZA ZIGORRA** hiruentzat.

Askorentzat Madrildik berri lazgarria etorri zen! Eta zer esanik ez Bernardo, Juan Martin eta Joserentzat!



Iruñeko udaletxea 1930ean ▲



Beste heriotza zigor famatu bat Iruñean: hiru anarkista

Berueteko hiru anaiak Madrilgo Kontseilu Militar Gorenaren sententziaren zain zeudenean, beste gertakari bat izan zen, gertakari oraindik famatuagoa. 1924ko azaroaren 6an, Donibane Lohitzunetik Beran barna 45 iraultzaile edo erreboluzionario sartu ziren, armak eskutan, Primo Rivera Diktadorearen kontra ekiteko. Eta Beran, hurrengo egunean, 7an, goizaldera, aguazilak, Enrique Beratsainek, ikusi eta kuartelean parte eman kontrabandistak edo ote ziren. Berehala guardi zibil pare bat haien bila atera zen eta tiroketa baten ondorioz, bi guardia zibilak hilak gertatu ziren, eta ondoren, Beran ziren guardia zibil, karabinero eta somaten guziak bildu eta atera ziren batera, erreboluzionarioen bila atxilotzeko asmotan. Izandako borroketan iraultzaile bat hila gertatu zen, ofizialki. Baina egiaz, lau izan ziren hilak eta Iparraldetik hona pasatutakoak 45 baino frankoz ere gehiago.

Batzuk bestaldera pasatzea erdietsi zuten baina atxilotu asko izan zen. Horietako lau, buru bezala hartu eta Iruñeko kartzelara ekarri eta Tribunal militar batek, hilaren 14an "Sumarisimoa" aplikatuz, epaitu eta absolbitu egin zituen. Ez zituztela in fraganti harrapatu, hau da, ez zituztela guardia zibilak hiltzen harrapatu eta ezin zela jakin horiek ziren benetako hiltzaileak (Absolbitu bai, baina kartzelatik atera ez, gainerako atxilotu guziekin batera izanen

zuten beste juizioaren esperoan utzi zituzten)

Beruetarren kasuan bezala, Burgosko Jeneral kapitaina konforme ez eta Kontseilu Militar Gorenaren esku utzi zuen, eta Madrilen abenduaren 1ean egindako epaiketan hiltzera kondenatu zituzten HIRU. Laugarrena absolbitu egin zuten, judizio normalean gainerakoekin batera epaitzeko.

Abenduaren 6an, eta Iruñeko Kartzelan, goizeko 7etan sententzia betetzeko asmoz hil behar zituztenean, horietako gazteena, Pablo **Martin Sanchez**,



guardien atzaparretatik libratu, eskaileratan gora ihesi egin eta bere burua goitik behera bota zuen, bertan hilik gertatu zelarik.

Nahiz horrelako heriotza garratza suertatu, ez zen horrengatik sententzia bete gabe gelditu. Berehala, urkamendira igoarazi eta urkatu zituzten beste biak: Enrique Gil Galar eta Julian Santillán Rodríguez.

"Berako gertakizunak" bezala ezaguna zen hura harrigarria izan zen benetan, Primo de Rivera famatuak urtea estatu golpea eman zuela, Espainiako jende gehientsuena bere alde, PSOE eta UGT diktadorearekin sozio... eta anarkista hauek ametsetan, lau arma zikin hartu eta muga pasa eta Berara eta bertatik Donostiara jotzeko asmotan... Harrigarria benetan, gizon hauen informazio falta, abenturazalekeria eta, esan dugun bezala, ameskeria.

Gero, kontuak garbi jarri nahi eta "Espainiako Gobernuak" engainatu zituztelako kontua atera zen. Ederki! Kontu honen antzekoa gertatu zen lehenago ere, 1872an Beratik sartu karlista taldea, ia armarik gabe, eta Oroketan erabateko porrota izan zutenean. Eta horrelatsuko kontua izan zen, ondoren ere, 1944an makiak sartu zirenean, Espainiako berri ongi jakin gabe, boluntarismo hutsean. Ordukoaz ere gure gurasoek hala esaten ziguten: "engañatuik etorri yittun". Jakina! Horrela gertatzen dira gerta behar ez luketenak! Urrutitik gauzak aise ikusten!

▲ *Francisco Largo Caballero. UGTko idazkaria zen 1924an. Eta 1936an, gerra hasi eta bi hilabeteren buruan, berriz, Gobernuko Presidente, 1937ko maiatzera artio. PSOE eta UGT Primo de Rivera Diktadorearen sozioak izan ziren (Fotografia: Wikipedia)*



Heriotza

zigorraren kontra

Indultuaren atzetik

Berueteko heriotza ankerrak jendea sumindu bazuen ere, orain, hiru goñitarrek heriotza zigorra izanen zutela entzuteak kontzientziak inarrosi zituen, batez ere jende ikasien artean.

Ilbeltzaren 26an Iruñeko alkatea, Leandro Nagore, Madrilen zen udaleko zenbait gai tratatzera joana. Gainera hor zuen Berueteko lapurren auzia. Udal askotatik hartu zituen alkateen indultuaren aldeko telegramak; jendeak ez zuen inola ere nahi berriz ere urkamendia jarrezaten kartzelan. Berako afera aski eta sobera zitzaien, ez zen jendearen gustukoa heriotza zigorra.

Eta 26 eta 27an **Directorio**ko Sekretarioa zen Noubilas jeneralarekin izan zuen hitzordua. Honek bere ongi nahia azaldu zion eta agindu ere bai aldekotasuna. Ondoren **Buena Vista** jauregira joan zen, Primero de Rivera diktadorearekin hizketatzera. Honi azaldu zion Berueteko krimena nola izan zen eta aipatu ere bai hiru gazte leitzen ez zekiten batzuk zirela, beti herrian bizi izandakoak... Primok

agindu zion eskatzen zuena kontutan hartuko zuela eta **Direktorio**ko Kontseiluan ekarri zuen nahia betetzen ahaleginduko zela eta Erregeri indultua aholkatuko ziola. Eta hau guzia egin ondoren, beste hainbat puxant ere bisitatu zituen, esate baterako Los Arcos jenerala. Hitz onak denen partetik.

Eta azken iltzea ere jo nahi izan zuen: Errege ez zen Madrilen, Doñanan baizik, ehizan, eta telegrama bat igorri zion Vianako markesari, Erregeri azal ziezaion Iruñeko eta Nafarroako nahi bizia, indultatzea zela.

Egindako guzia kontutan harturik eta denek erakutsi zuten prestutasuna ikusirik, ematen zuen indultua erdietsiko zela.

Biharamunean **Direktorio**ko kontseilua izan zen eta Iruñeko Alkatea baikor azaldu zitzaion La Voz de Navarrako kazetariari. Indultua izanen zen, hori zen ustea.

Hilaren 30ean hor segitzen zuen Nagore jaunak Madrilen, eginahaletan, hau eta beste bisitatuz.

(Hurrengoan segituko dugu kontakizun honekin)




Txurdan

- **Hiztegia**
- **Epaia:** sententzia
- **Somaten:** Diktaturak sortu zuen milizia gisako bat.
- **Atxilotu:** preso hartu.
- **In fraganti:** delitua egiteko momentu berean (latin esaldia da)
- **Epaiketa:** judizioa
- **Garratza:** gogorra
- **Urkamendia:** horca
- **Bertatik bertara:** hurbil-hurbiletik
- **Ankerra:** despiadado
- **Hitzordua:** cita
- **Jauregia:** palazioa
- **Aholkatu:** aconsejar
- **Puxant(a):** poderoso
- **Igorri:** bidali. Basaburua aldean bidali. Ultzamaldean, igorri.
- **Erdietsi:** lortu, lograr (hemengo ere bada hitz hau)
- **Kontseilua:** Consejo (Erabakiak hartzen dituen batzarra)
- **“Epaia onartu ez”** Esamolde arrunta da hemengo zaharren artean (Askotan ez da esan beharrik epaia ez zuen onartu, lehen aipatu esaldia politagoa eta laburragoa da)



◀ Leandro Nagore, Iruñeko alkatea udaleko banderarekin Katedraleko bidean, 1925. urtekoa (Iruñeko udal fototeka) (Enpresetan goi karguak izan zituen, Diktadura etortzean Iruñeko Alkate 1923-1926) Diputazioan diputatu (1926-1930) eta Unión Patriótica-ko Nafarroako buru (Fotografia: Wikipedia)



Bat labetik atera berria

Aitzinekoa

2016ko eguberri egunean Aldapako San Fermin elizan meza ematen Fermin Ixurko eta Santi frailea.

Meza hasi eta bost meza entzule besterik ez ginen. Oraindik bakar batzuk falta ziren eta hara non XXXX bere familiakoekin sartzen den eta, tapa-tapa, gehientsuenak denen aurretik jartzen diren. Aurrena zegoena baina puskaz aurrerago. Zuzen errateko, bigarren eta hirugarren bankuetan, biak betez.

Apezak, sermoia eta abar beti bezala eginez, eta beti bezala, Komunio aurrean "para los que no saben la **lengua nacional**, unas palabras en español..." eta erdaraz mintzatu zen. Esaldi batzuk.

Gero, meza bukatu aitzin ere zerbait esan behar eta ez du bada erdaraz hitz egin! Zergatik ote? Ongi euskaltzalea da bada apez hau! Eta ez du ba horrela egiten gainerakoetan!

Atera ginen mezatik eta, bidean, puska batean lagundu nioenean, hau eta bestez hitz egin ondoren hara zer atera didan:

-Hor aurrean jarri diren horiek erdaldunak izanen ziren!

-Bai, bai, bakarren batek badaki baina ia denak erdaldunak dira.

-Nahasten naute. Atzean, denen atzean jarri behar luketenak, arrotzak, aurreneko aulkian.

Herri honetako zorigaitza da hau, arrotzak nagusi. Eta aitzinean, gidari, ordezkari, nagusi!

Bigarrena

Orain berriki, omenaldi bat egin diote emakume bati gure herrietako batean, elizan; meza batekin omendu nahi izan dute. Meza aurretik, kanpotarra den apezka, urrutikoa gainera, mintzatu da antolatzaileekin eta azaldu die:

-Nik ez dut erlijiozko ez den kanturik onartuko mezakoan.

Eta hala joan da meza, erdaraz, euskara inondik ere azaldu gabe. Bukatutakoan, koruan zen koralak "Txoriak txori" kantatu behar duela. Hala erran du zuzendariak. Eta apezak, aldaretik, hala erran dio, hasi baino lehenago, zelati:

-¿Qué significa esa canción?

-Libertad.

Bai, hori da euskaldunok eskatzen duguna: askatasuna gure

lurraldean. Orain berean Madrildik edo Limatik etorritakoek dute agintzen hemen. Alderdi ederra gure etxearen onerako! Arrotza nagusi! Arrotzak nagusi!

Ardo frexkoa eskasten ari zaigu. Adiskide, hurrengorako eta noiznahiko ez duzu ardoa ur hotzean sartuko, tragoxka batzuk noizbehinka egin ditzagun?



Txurdan

- **Hiztegia**
- **Omenaldia:** homenaje
- **Antolatzailea:** organizador
- **Zelatia:** celoso
- **OHARRA.** Lengua nacional, dio D. Ferminek, euskarari. Inor ohartu ez bada ere, diot hau!



Vanessa Pacha, atleta: “Hil arte nahiko nuke atletismoa egin”

Vanessa Pacha Urteaga iraziozarrak urrezko domina eskuratu du Munduko Master Atletismo Txapelketan. Hain zuzen ere, 2.000 metroko oztopo-lasterketan irabazi zuen, 35 urtetik gorako atletak biltzen dituen mundial honetan.

Gotenburgon, Suedian, izan zen aurtengo Munduko Master Atletismo Txapelketa, abuztuan. Iraiozko **Lopitxeneko** Vanessa Pacha Urteaga iraziozarrak 2.000 metroko oztopo-lasterketan urrezko domina lortu zuen: “Jendea oso-oso ona da, herrialde guztietatik etortzen direlako. Baina ez dago irabazi beharreko presiorik. Disfrutatu eta jendea ezagutu egiten da.

Jendeak asko laguntzen zaitu. Zerbait ahaztu duzula? Arazorik gabe uzten dizute, zapatilak edo behar duzuna”. 1982an jaioa, F40 beterean modalitatean aritu zen eta ezin digu hitzez adierazi sentitu zuen poza. Malagako 2018ko mundialean brontzea eskuratu zuen eta Italiako Europako Master Txapelketan, 2019an, urrezko domina.

Txikitatik egin duzu atletismoa?

Txikitan hemen inguruko krosaren bat edo beste egin nuen. Gero futboleant hasi nintzen, lehenendabizi hemen eta gero San Juan eta Amaya taldeetan. Futboleant 20 urte baino gehiago aritu ondoren hasi nintzen korrikan, 27 urterekin. Pixka bat berandu (irriak).

Ultzamaldean neska talde bat sortu zenuten, ezta?

Bai eta bost udalerriren arteko txapelketak egiten genituen. Oso gustura ibiltzen ginen. Taldekoak klase berekoak edo eskolako maila berekoak ginen, denak ingurukoak. Garai onak izan ziren horiek. Iruñera, Erriberara, eta beste herri batzuetara joaten ginen jokatzera. Oso polita zen.

Orain gehiago ikusten da nesken futbola baina garai horretan zuena bezalako talde bat osatzea ohikoa al zen?

Aitzindariak izan ginela sentitzen dut. Baldintza eskasekin aritzen ginen orduan. Ni, orain, harro sentiarazten nau. Aitzindariak igual ez baina gu lokatzez edo harriz beteriko zelaietan aritzen ginen eta orain beste baldintzatan aritzen dira. Hori ere noizbait iritsi behar zen. Ea gizonezkoen futbolaren pareko bihurtzen den. Gutxienez soldadari dagokionez. Gaur behintzat telebistan partidak ematen dituzte, mundialak ikusgarritasuna izan zuen...



Arraitzen bildu ginen Vanessa Pacharekin

Bai, orain emakume jokalarien izenak botatzen dituzten neskakilak ikusten dira...

Hori da politena. Nik oraindik Vinicius eta horrelako gizonezkoen izenak entzuten dizkiet. Egun batean esan ere egin nien, badirela garrantzitsuak egin diren emakumeak, erreferenteak badirenak. Baina hori ere etorriko da.

Kirolak zer ematen dizu?

Deskonexioa eta bizipoza. Niretako hori oso garrantzitsua da. Nik ez dut nire bizia ikusten kirolarik gabe. Dena ematen dit. Gainera, konpromisoa eskatzen dizu eta bidean jende askorekin egiten duzu topo, bizi guztirako lagunak egiten dituzu. Bestetik, ez nuke jakingo zer egin kirola egingo ez banu! (irriak) beti ibili behar naiz zerbaitetan... Energia askatzea beharrezkoa da niretako... covidaren itxialdian, adibidez, oso gaizki pasatu nuen.

Nola hasi zinen lasterketetan?

Hiru Herri taldearekin hasi nintzen. Txantreako Herri Krosean irabazi nuen eta horren ondorioz deitu zidaten. Hiru Herri Burlatako, Atarrabiako eta Uharteko taldea da. Han hasi nintzen, Juanjo Bizkairekin entrenatzen eta orain arte.

Eta txapelketetan berehala hasi al zinen?

Lehenengo herri lasterketetan hasi nintzen eta, gero kros handiagoetara pasa nintzen. Ondoren pistan ere hasi nintzen, baina kanpokoan, aire librean. Estalitako pistan ez naiz aritzen 200 metrokoak besterik ez direlako eta hamster bat bezala sentitzen naiz horrelakoetan (irriak). Pista irekian 5.000, 3.000, 1.500 eta 10.000 metrotan hasi nintzen, baina azken hori sufrimendu handia zen niretako. Juanjori (Bizkai

entrenatzaileari) esan nion eta oztopo-lasterketan probatzeko esan zidan. Asmatu genuen, nire proba da. Oztopoez gain, erreka ere gainditu behar duzu... lasterketa motza egiten zaizu eta buruarendako, ona da, dinamikoa egiten zaidalako.

Berehala harrapatu al zenion oztopoak gainditzeari?

Ez, ez. Teknika landu behar duzu. Hasi nintzenean Juanjok askotan eskuak burura eramaten zituela ikusten nuen (irriak). Oztopoa eta ura ikusten duzunean, lehenengo aldian, gelditu egiten zara, senak gelditzen zaitu. Horrela, Juanjori esan nion mutilen oztopoak jartzeko, pixka bat altuagoak direlako. Hasieran oztopoa saltoz gainditu ordez oztopora saltoz igotzen nintzen eta gero jaitsi. Horrela, beldurra kendu nion, eta berriz neskena paratzeko esan nionean erraza iruditu zitzaidan. Hasieran koltxonetak ere erabili genituen. Baina, horrela, poliki-poliki ikasi nuen. Gero entrenatzea da, etengabe.

Eta zer sentitzen da irabazten denean?

Poza... baina ezin da ongi deskribatu. Lan guztiak merezi duela sentitzen duzu, sartu dituzun ordu guztiek merezi izan dutela.

Kontrakoa ere sentitzen al duzu galtzerakoan?

Horrelakoetan gehiago entrenatu behar dudala pentsatzen dut. Nire esfortzua %100 izan bada, %200 izan behar duela. Niretako galtzea ez baita huts egitea, irakaskuntza bat da. Zerbait gaizki egin dudalako izaten da eta hori ikasten jakin behar dut, hori aldatzeko. Kontua da lortzen ez duzunean buklean ez sartzea, eta hori ez egitea oso zaila da, batez ere profesionalendako. Psikologoekin gehien landu behar dena dutela iruditzen zait.

Bidea ere disfrutatzea...

Hori da. Kirola disfrutatzeko da.

Esan zenidanez, zuk korrika egiten hil nahi duzu.

Bai (irriak) hori guztiok esten dugu. Kirola oso-oso inportantea da niretako eta osasunak aukera ematen baldin badit hil arte egingen dut. Masterretan 60, 70, eta 100 urteko jendea ere ikusten duzu! Niretako izugarria da. Badut argazki bat pisu jaurtiketako Europako txapelkunarekin, Estoniakoa da, eta 100 urte baino gehiago ditu!



▲ Europako pisu jaurtiketako txapelkunak 100 urte baino gehiago ditu



Webgunea elikatzen jarraituko dugu

Ikasturte berria iritsi da eta harekin batera itzuli dira Esan Erran irrati irratiko irratsaio propioak. Hemen da berriz Egun Ero, eta saioa osorik zintzilikatzearekin batera, bertan izandako elkarrizketak eta kolaborazioak banan-banan igoko ditugu amezti.eus-era. Eskualdeko azken albisteak irakurtzeko eta agendaren berri izateko ere, sartu gure webgunean.

Irailean irrati izaten da nabarmentzekoa. Izan ere, Esan Erran bere betiko martxara itzuli da eta horrek esan nahi du Egun Ero eta Broma Gutxi irratsaioak bueltan direla. Egun Erok betiko eredia jarraituko du: Hau da, ordubeteko irratsaioan, aktualitateari eta agendari buruzko elkarrizketa bat ekarriko du lehenengo zatian; bigarrenean, kolaborazioaren tartea izanen du, hainbat eta hainbat gairen inguruan aritzen diren hogeina kolaborazioak baititu saioak.

Kolaboratzaile berriak ere izanen dira denboraldi honetan eta hilabeteen zehar aurkezten joanen dira. Horietako batzuk dira historiako emakumeen inguruan arituko dena; eta, eskualdeko euskararen ingurukoa. Ostiraletan, Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa txandakatzen jarraituko dira. Lehenengoa biak, honezkerok, entzungai dituzue amezti.eus-en. Garazi Zabaleta Urkiola, irrati langileak berak, bota zuen bere hamar kantuz osatutako zerrenda; eta, Memoriaren Txokoa, Palestinaren egoerari eman zioten erreparoa.

Egun Ero Kantu.
Garazi Zabaleta



Dakizuenez, astelehenerdik ostiralera 10:00etatik 11:00ak bitartean izaten da Egun Ero, zuzenean; eta, 13:00etan eta 20:00etan errepikapena entzuteko aukera dugu 107.9an. Gure webgunean, gainera, amezti.eus/irratia/zuzenekoa esteka ere baduzue; eta, aipatutako podkastak.

Irratiarekin jarraituz, abuztuan oporrak hartu ondoren, Tipul Menier ere itzuli da Broma Gutxi irratsaioaren hamargarren atalarekin. Hardcore punk binilo zaharrei hautsa kentzeko eta berriak aurkezteko helburuarekin, aurten ere hamabostero hartuko ditu irrati mahaiaren mandoak, ostegunetan, 19:00etan. Zuzenekoa galduz gero, ordea, larunbatean 20:00etan errepikapena entzuteko aukera izanen duzue. Baina, noski, amezti.eus-en ere zintzilikatzen jarraituko ditugu saio guztiak.

Broma Gutxiren
hamargarren atala





Albisteak

Eskualdeko albisteen iturria izaten da amezti.eus. Ikasturte hasiera honetan eskolak eta harekin lotutakoak izan dira nagusi. Irakaskuntza greba izan baitzen irailaren 26an eta 27an, bertan egindako konposta atera eta

ikasleen eta langileen artean banatu zuten Larraintzarko ikastetxean. Banaketa horren argazki galeria ere aurkituko duzue gure webgunean.

Konpost jardueraren argazki galeria



Pulunpe aldizkaria PDFn

Artikulu hau paperezko aldizkarian irakurtzen ari bazara, jakin ezazu, Pulunpe aldizkari hau eta azken urteotan argitaratu direnak irakurgai dituzuela amezti.eus atarian ere. Gainera, zuen etxeetara iritsi baino lehen igotzen dugu online bertsioa! Hemen beheko QRan sartuta topatuko dituzue orain arte igo ditugunak.



Pulunpe aldizkaria



Eskualdeko kultur agenda!

Astero gure eskualdean izaten diren kultur eta bestelako hitzordurik ez galtzeko, agenda aurkituko duzue gure webgunean.

Agenda



The screenshot shows the 'amezti' website's agenda page. At the top, there are navigation tabs: 'ESAN ERRIAN IRRATIA', 'PULUNPE', 'AGENDA', 'ARGAZKI-GALERIAK', and 'ESAN ERRIAN 25 URTE'. The main content is titled 'Agenda' and lists four events for the week of 2024/10/04:

- 2024/10/04 11:00:** LIZARRA, ULIZARRA: Yoga eta soinudun meditazio erretiroa Ultzaman.
- 2024/10/04 19:00:** Lizarrako Kultur Etxean, Lizarrak: Liburu aurkezpena: Moio AURKEZPENAK.
- 2024/10/04 19:00 - 21:00:** Larrainzarko Bostea, Ulizarra: Ostiral kulturalak: El que no ve PROIEKZIOA.
- 2024/10/11 17:00:** Larrainzarko Bostea, Ulizarra: Ostiral kulturalak: Saharako kamishibaia IPURKONTALAFIA.



Saharako hilabetea liburutegian

Urriaren 11n, Saharako Kabiak elkartearekin batera hainbat jarduera antolatuko dugu liburutegian saharar herriaren egoera ezagutzeko.

Kabiak. Horrela deitzen diete sahararrek errefuxiatuen kanpamenduetan eraiki dituzten liburutegiei. Eta hitz-joko horretatik abiatuta eratzten da 'Saharako Kabiak-Nidos del Sáhara' elkartearen izena. Saharar kulturaren eta gurearen arteko loturak sortzea da elkarte honen lana, eta hilabete honetan zehar, Nafarroako Liburutegien Sarearen laguntzarekin, kultur ostiraletara hainbat jarduera ekarriko dituzte.

Bai, Ultzamako liburutegiak Saharako kabiak-Nidos del Sahararekin batera antolatu ditu zenbait ekimen. Adibidez, hiru astez, urriaren 7tik 25era arte, erakusketa batek aukera emanen digu sahararren kultura ezagutzeko, herri sahararra bizitzen ari den egoera eta errefuxiatu kanpamenduetan dagoen Bubisher liburutegien proiektua ezagurazteko.

Urriaren 11n bi jarduera izango ditugu: 17:00etan, Larraintzarko Bentan, kamishibai bat izanen dugu. Saio honetan saharako zenbait ipuin kontatuko ditugu. Horretaz gain, zenbait aktibitate egingo ditugu haurrek Saharako kultura ezagutzeko.

Eta, jarraian, 19:00etan, hitzaldi bat egingen dugu errefuxiatu sahararren kanpamentuetan dagoen Bubisher liburutegien proiektuaz. Bubisherra basamortuko txori txiki bat da, tenperatura handiak jasaten dituena, eta sahararrei berri onak iragartzen dizkie. Horregatik deitu diote horrela Bubisher proiektuari, Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpalekuetara liburuak eta kultura eramaten dituen liburutegi eta bibliobus sarea da. Bubisher arduratzen da, halaber, liburuazainak herrialde hartan prestatzeaz eta, azken batean, kultura basamortuan

urrunen dauden bazterretara eramateaz.





Azkenik, hilaren 25ean, irakurketa klub ireki bat izanen dugu eta bertan Liman Boisha idazle sahararraren "Ritos de jaima" liburua komentatuko dugu. Bere herriaren ahotsa altxatzen duenaren amorrus idatzitako poemen liburua da "Ritos de jaima". Bidaia liluragarria saharar herria maite dutenentzat, milaka urteko kultura batera hurbildu nahi dutenentzat eta herri bakoitza

gizateriaren historian ezinbesteko zati baten eramailea dela uste dutenentzat. Boisharen liburuan, saharar herriaren erreferentzia kultural batetik abiatuta, bertso bat egiten du egileak. Eta, gero, erreferentzia horrek zer esan nahi duen azaltzen du. Horretaz guztiaz hitz egingo dugu saio ireki honetan. Urriaren 24an izanen da, arratsaldeko 19:00etan, liburutegian.

Urriko egitaraua beste bi jarduerarekin osatuko da. Alde batetik, hilaren 4an, Montxo Rejanoren esperientziak kontatzen dituen dokumentala eta El que no ve liburua aurkeztu ziren.

Eta, bestetik, Onddoaren Eguneko programazioarekin bat egin dugu, Micología de andar por casa hitzaldiarekin: 'Onddoak moztu edo osorik hartu behar dira?' izeneko hitzaldiarekin. Ba al dago onddo hilgarririk? Zer onddo jangarri aurkitu ditzakegu Ultzaman? Nola funtzionatzen du baso batek? Javier Gómez Urrutia mikologo eta ingurumen-hezitzaileak galdera horiei eta beste batzuei erantzungo die Onddoaren Egunarekin lotutako jardueren barruan dagoen hitzaldi honetan.

On egin!



2024ko abuztua

2024ko agorrilean edo abuztuan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Sortzeak:

ULTZAMA

Auza

Unai Begino Beratsain, Mikel eta Joanaren semea, abuztuaren 6an sortu zen.



▲ Miguel eta Joana, Unai sortu berriarekin

ULTZAMA

Lizaso

Oier Gartzia Oliver, abuztuaren 13 sortua, Mikel eta Leyreren semea.



▲ Martin, Oier altzoan duela

Ezkontzak

ULTZAMA

Lizaso

Iker Marturet Zia, Lizasokoa eta Olaia Hernandez Goñi, Iruñekoa, abuztuaren 20an ezkondu ziren. Lanzko **Goltxipenean** biziko dira.



▲ Iker eta Olaia

Heriotzak:

ANUE

Olague

Milagros Ilarregi Egozkue, **Okindegiko** etxeakoandre zaharra, abuztuaren 25ean hil zen, 89 urtetan.



▲ Milagros Ilarregi

LANTZ

Maria Victoria Eugi Larramendi, **Matxikoneko** alaba, abuztuaren 30ean hil zen 96 urtetan.



▲ Mari Victoria, ilobez inguratua

ULTZAMA

Iraizotz

Maria Jesus Urteaga Espinal, **Lopitxeneko** etxeakoandre gaztea, abuztuaren 4an hil zen 67 urtetan.



▲ Maria Jesus

“ Aupa bat gure gurasoei! ”

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





errigora

agerraldia
euskara plaza

ikastolenkartea

aek

Sortzen

Eman bultzada, indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

urriak 24 - azaroak 14



*Saskien balioaren %25
Nafarroa erdialde eta
hegoaldeko (Agerreko)
euskaingintzara bideratuko da*

errigora.eus



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€ 



Saski gorria 75€



Karta-jokoa
+5€